

txi kitto!



**DATORREN
URTERA ARTE!!!**



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

Txis Peak

✓ Aditzak ikasten, andereñok Jaimitori:

- Jaimito, errepikatu esan dudana.
- Nik igeri egiten dut, zuk igeri egiten duzu...
- Jaimito, baxuago!
- Nik buzeatu egiten dut, zuk buzeatu egiten duzu...



✓ Ama, zer ari zara ordenagailuaren aurrean betazalak itxita?

- Windows-ek esan dit betazalak ixteko eta horixe egin dut!



✓ Zeintzuk dira munduko animaliarik zaharrenak?

- Pinguinoak eta zebra, txuri-beltzak direlako.

✓ Mutil batek medikuari:

- Astebete daramat jan gabe eta lo egin gabe, zer dut?
- Gosea eta logurea.





- ✓ - Ezagutzen al duzue aitonaren txistea?
- Ez.
- Oso zaharra delako.

- ✓ - Aita, aita, zure prakek zuloa dute!
- Ez seme, ez.
- Eta orduan nola sartu dituzu hankak barrura?



✓ Maisuak gelan:

- Bihar amaren eguna dela-eta, “Ama bakarra dago” esaldia duen esaldi bat osatu beharko duzue biharko.

Hurrengo egunean:

- Ze esaldi ekarri duzue? –maisua.
- Erori egin nintzen eta amak lagundu zidan. Ama bakarra dago munduan –esan zuen Peiok.

Eta Jaimitok:

- Nire etxera amaren lagun bat etorri zen eta esan zidan amak garagardo bat eramateko. Hozkailura joan nintzenean bakarra zegoen eta esan nion: ama, bakarra dago.



Denborapasak

HITZ-ZOPA


Animaliak

R	A	A	V	A	K	A	J	P	G
F	I	K	P	M	E	E	A	F	K
X	G	E	A	R	T	D	L	A	A
T	R	R	I	A	V	R	I	R	Z
X	A	R	D	I	S	U	D	R	T
A	T	R	L	M	T	Z	N	O	N
H	R	A	A	R	X	I	A	H	U
A	U	T	Z	A	I	Y	G	E	H
L	P	M	S	F	T	O	U	B	A
A	I	A	K	K	A	K	S	E	J

ahuntza
akerra
armiarma
behorra
ipurtargia
izurdea
sugandila
txahala
txita
zaldia

JEROGLIFIKOAK

1



Zer inporta zaidan? Niri...

2



Noiz egiten du eguraldirik txarrena?



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Oihenart Agirre** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta ...eta kitto!ko sudadera eraman ditu Oihenartek etxera. Zorionak!



7 desberdintasunak




**BIDALI ERANTZUNAK MARTXOAK 9 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena

AdinaTel.....

Denborapasak

LABIRINTOA



SUDOKUA

				2			7
2		9	6				
1		8	4				
	9		1	6			
	5	6				9	3
				4	5		8
					6	1	5
					1	3	9
9			2				

Aratosteak argazkitan



Urkizu



J.A. Mogel



Aldatze




Arrateko Andra Mari



San Andres



Amaña





Kaldereroak eta pregoia



Zapatuko giroa



Playback lehiaketa





Kaixo lagunok! **ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxean otsaila ere ekintzaz beteta etorri zaigu.

Otsailaren 13an “Hazteko energia” tailerra izan zuten 4. mailako ikasleek. Egun berean eta inauteriei amaiera emateko, antifazen eta kareten tailerra antolatu genuen ikasle guztientzat eta gurasoek txokolatea prestatu ziguten. Horrez gain, eta urtero bezala, otsailaren 16an irrati-saioekin hasi ginen. Hor ari dira HH eta LHko ikasle eta irakasle guztiak lan eta lan, saio ezin politagoak prestatzen! (Argazki 1)

J. A. MOGEL

IKASTOLAKO 5. mailakoak Unicef-ek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako hartzaroaren parte-hartze proiektu pilotuaren barnean daude. Esperientzia honen bitartez, umeen parte-hartze aktiboa sustatzeko espazioa sortu nahi da; euren iritzia entzuteko, euren gertuko testuinguruari buruz eta Gipuzkoako lurraldeari buruz, hausnarketak egiteko eta ardurak adierazteko aukerak sortuz. Urtarrilean izan genuen lehen tailerra ikastolako liburutegian eta otsailaren 13 eta 26an ere bai. Azken topaketa maiatzaren 18an izango da Donostian. Gipuzkoako hiriburuan egun polit bat igarotzeko aprobetxatuko dugu!



ARATOSTEETAKO LEHIAKETA ALDATZEN

Aurten Euskal Herriko eskualde desberdinetako ihauteriak ardatz bezala harturik, taldeka mozorro desberdinak sortu dituzte Aldatzeko 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek. Aukera bikaina ihauteri desberdinak ezagutzeko eta irudimena erabiliz eskulanak burutzeko. Hona hemen sortutako mozorro batzuk.



AMAÑAko ikastetxean, aurtengo aratosteetako gaia aprobetxatuz, 4 eta 5 urteko geletako lagunok Euskal Mitologiako pertsonaiak ezagutzeko aukera izan dugu. Mari, Akerbeltz, Basajaun, Gauargi, Lamiak, Sorginak, Galtxagorriak eta Tartalo izan ditugu ikasgai egunotan.

Kaixo denoi **LA SALLE ISASITIK!** Otsaila hasieran bakearen aldeko ospakizuna izan

genuen eskolan, usoak eta globoak aineratu genituen! Hilaren 8an, Eguen Zuri egunean, Euskal Jaia antolatu genuen eskolan: San Fermin, danborrada, arrantzaleak, kaldereroak... San Blas egunean Izartxo ludotekan mozorroak prestatzen jardun genuen eta 3D inprimagailu batekin tailerra antolatu eta primeran pasatu genuen! 3. eta 4. mailakoak, berriz, igeriketa-ikastaroa izan dute kiroldegian.



URKIZU eskolan Enkarni Genua izan genuen, “Itsasminez” txotxongilo-antzerkia gure txikienei eskaintzen. Asko disfrutatu zuten denek! Lehen eta bigarren zikloek, berriz, Coliseoan “Ballerina” pelikula ikusteko aukera izan zuten, Tinko Zinema Euskaraz programaren barruan. Lehen mailakoek, San Blas eguna eskolan ospatzeko, opilak egin zituzten gure sukalde-txokoa aprobetxatuz... eta mundialak atera zitzaizkien!

5. eta 6. mailakoek ere, Odol Emailletako bi eraizainen sentsibilizazio-saio bat jaso dute eskolan. Benetan interesgarria. Aratosteetan maskara-tailerra ere egin genuen, eta bukatzeko, Ana Galarraga euskal idazle eta Elhuyarreko ikertzaile ospetsua gure eskolan izan genuen, gure esperimentazio txokoa bere azken liburua aurkeztu eta umeekin batera hainbat esperimentu eta jarduera egiteko: benetako plazerra eta gozamena izan zen guztiontzat.






KAFE-KAPSULEN NORIA

MATERIALA

- ✓ Kartoia
- ✓ Plater bat
- ✓ Erregela
- ✓ Arkatza

- ✓ Koloretako margoa
- ✓ Kuterra
- ✓ Kafe-kapsulak
- ✓ Itsasgarria



PAUSOAK


- 1.- Platerraren zirkunferentzia marraztu kartoi gainean, eta pizza bat balitz bezala erregela eta arkatzarekin zatitu zortzi zatitan. Hainbat zentimetroko tartea utzi triangelu batetik bestera, noriaren oinarria osatzeko. Triangelu bakoitza kuterrarekin moztu.
- 2.- Kartoi laukizuzenarekin egin noriaren oinarria. Kartoia tolestu oinarri sendoko triangelua osatu arte. Noriaren oinarria triangeluzko oinarriarekin batu bi hankadun txintxeta batekin. Txintxeta sartu aurretik, kuterrarekin zulotxo bat egin errazago sartzeko.
- 3.- Koloretako margoekin dekoratu noriaren elementuak.
- 4.- Kafe-kapsulak ondo garbitu eta lehortu. Norian itsatsi zortziak, bakoitza bere tokian.

Ti-ta!

SUMO BOTILAK

Sumo borrokalarien bolo-joko dibertigarri hau egiteko hainbat botila bildu behar dituzu. Arrosa kolorearekin margotu eta lehortzen utzi. Botilaren goiko aldea beltzez margotu sumo borrokalarien ilea izango balitz bezala. Ez ahaztu tapoia borrokalarien kopeta izango dela. Lehortzen denean, borrokalariak estaltzen dituen mawashia zuriz margotu. Errotulagailuarekin ahoa eta begia marraztu. Lana amaitzean, kolore gabeko bernizarekin boloak babestu. Hondarrarekin bete eta eurekin jolasteko prest egongo dira!





OILASKO ALBONDIGAK SAGARRAREKIN

Zartagina eta labea erabili beharko dituzue, heldu batekin egin ezazue errezeta hau.

OSAGAIK (4 LAGUNENTZAT):

- ✓ Oilasko-bular xehatua
- ✓ Zati oso txikietan moztutako tipuleta erdia
- ✓ Birrindutako sagar bat
- ✓ M tamainako aurrautza bat
- ✓ Greziako jogurt bat
- ✓ Lau koilarakada ogi-xehatu
- ✓ Gatza

SAGAR-PUREA

- ✓ Xaflatan moztutako sagar bat
- ✓ Azukre koilarakada bi
- ✓ Ardo txuri pixka bat
- ✓ Gatza

PAUSOAK

- 1- Oilasko xehatua ontzi baten jarri eta zatitutako tipuleta freskoa gehitu. Ondo nahastu.
- 2- Sagarrak xehatua, aurrautza eta jogurta gehitu. Ondo nahastu eta, azkenik, ogi-xehatua gehitu. Osagai guztiak ondo oratu eta hozkailuan sartu ordubetez.
- 3- Ordubete pasatzean, eskuak irinarekin igurtzi okela ez itsasteko eta bolatxoak egin.
- 4- Oliba-olio tanta batzuk bota zartaginera eta albondigak frijitu. Barrutik gordin geratuko dira, beraz, albondigak labean sartu 5-10
- minutuz 180°-tan, beroa goitik eta behetik botaz (labea aurretik berotu). Sagar-purearekin lagundu.
- 5- Purea egiteko sagarra zuritu eta zatitxoak moztu. Lapiko batean jarri eta ura bota sagarrak estali gabe. Ardo txuria, azukrea eta gatz pixka bat gehitu. Lapikoa sutan jarri eta 20 minututan kozinatu. Amaitzean, sagarra birrinduta egongo da. Beraz, puregailutik pasa eta kitto. Albondigak sagar-purearekin lagundu.



GALLETAK TXOKOLATEAREKIN



Gurin hotza kuboetan moztu eta birrindu, hondar antzekoa lortu arte. Azukrea gehitu eta gurinarekin nahastu. Arrautza bota eta mahaian oratu masa homogenea lortu arte. Film gardenarekin bildu eta hozkailuan sartu ordu erdiz. Hozkailutik ateratzean masa tenkatu arrabolarekin. Masa karratuetan moztu eta erretilu batean utzi labean sartzeko. Hamar minututan berotu 180°-tan eta gaileten izkinak txigortzean hozten utzi bost minututan. Galletak dekoratzeko, txokolatea mikrouhinean urtu eta gaileta erdiraino bertan sartu banan bana. Lehortu baino lehen, kolorezko 'txinpartak' bota eta lehortzen utzi.

Aldatze ikastetxearen historiari hasiera eman zion unea gogoratu, ikasleen artean haziak banatu eta landatu genituen ikasturte hasieran. Naturako izaki bizidunen gaiarekin bat eginik, gure proiektu baten parte bezala, 3. zikloko ikasleok haziak landatzea erabaki genuen. Bizitzaren prozesua ikusi eta bide honetan partaide sentitu gara!

Zer egin eta ikasi duzue hazien proiektu honetan?



**Telmo
Albistegui**
11 urte

Haziak eman zizkiguten eta guk poteetan sartu genituen. Izena eman genion landatutako haziei, gureak Ahbala dauka izena, eta han utzi genituen, landarea irteteko zain, haur hezkuntzako jolastokian. Oso ondo pasatu dut eta gauza asko ikasi ditut. Gustora errepikatuko nuke. Landareari eskatuko nioke... familia osoa Mexikora joateko txartelak ematea.



**Bernart
Abad**
11 urte

Aldatzeko kongregazioaren 200. urteurrena zela eta, jolastokira eraman gintuzten eta eguna ospatzeko kaxatxo bat eman ziguten ikasleei eta barruan haziak zeuden, eta landatu egin genituen. Gure landareen izenak Plandi eta Landi dira. Oso ondo pasatu dut lagunekin haziak landatzen, eta nik ere errepikatuko nuke. Landareak dirua emango balu asko poztuko nintzateke!



**Irati
Cid**
11 urte

Ontzietan lurra sartu eta bertan landatu genituen haziak. 200 urteak ospatzeko oso modu polita iruditu zitzaidan. Orain zain gaude, ea zer irteten den. Oso ondo pasatu nuen lagunekin eta beste eskola batzuetako ikasleei ere animatuko nieke horrelako zerbait egitera. Nik etxean ere egin dut proba baina ez zait ezer irten. Zerbait eskatzekotan... landarearen hostoak euro-bileteak izatea!



**Ane
Elorza**
11 urte

Oso dibertigarria izan da eta asko ikasi dugu. Denok elkarrekin jardun dugu, lurra sartu, haziak landatu, izena jarri... Errepikatuko nuke seguru! Etxean ere saiatu naiz horrelako zerbait egiten baina ez zait landaririk irten! Zer eskatuko nioke landareari? Maldivas irlalara joateko txartelak eta han etxe bat erosteko dirua!



**Alex
Oroz**
11 urte

Oso ondo pasatu dut lagunekin eta asko ikasi dugu. Gure landarearen izena Landare Junior izan da. Zain gaude, ea zerbait irteten den, eta zeozer eskatzekotan landaretik baloi bat irtetea nahiko nuke! Etxean ere egin dut proba, algodoia eta dena jarri diot, baina ez zait landaririk irten.




**Celia
Rubio**
11 urte

Asko ikasi genuen, haziak nola landatu, nola zaindu... baina horretaz gain, birziklapena ere landu dugu. Poteak ez ditugu erosi, etxetik ekarri genituen, birziklatutakoak ziren. Adibidez, botilak erditik moztu eta botilaren ipurdian sartu genituen haziak. Oso ondo pasatu dugu. Nik, landareari, Londredera joateko txartela eskatuko nioke



MUNDUKO LIBURU METARIK ALTUENA (6 URTETIK AURRERA)

Lukas erabat sinetsita zegoen hegan egiteko jaio zela. Hegazkinei begira geratzen zen, era guztietako hegoak fabrikatzen zituen, Gabonetako opari gisa ere hegan egin ahal izatea eskatu zuen! Baina dena alferrik zen, itxuraz... Halako egun batez, amak azaldu zion bazirela beste modu batzuk amets hura betetzeko, eta liburu bat jarri zion eskuetan. Egun hartan bertan, ohartu gabe, Lukas hegan egiten hasi zen.



NEMO KAPITAINAREN AZKEN BIDAIA (8 URTETIK AURRERA)

Nadia dut izena, ez dut anai-arrebarik, eta amarekin bizi naiz errepide ondoko pisu batean. Aita ez da gurekin bizi. Baina ez nire gurasoak bananduta daudelako, baizik ezin direlako elkarrekin egon. Nire aita kartzelan dago. Jaio nintzenean ere kartzelan zegoen. Niri ez zaizkit kartzelak gustatzen, hotzak eta zikinak direlako. Nik itsaso zabala maite dut, eta, nire aita non dagoen galdetzen didatenean, Ozeano Barean dagoela esaten dut maiz, urpekari batean, Nemo kapitaina bezala.



J. SMITHEN ALTXORRA (10 URTETIK AURRERA)

Udako oporrak!!! Agur eskolari, matematikako azterketei eta iratzargailuaren soinu jasanazinari. Martxel, Sare, Peio eta Olaia hurrengo ikasturtean institutura joango dira, baina lasaitasunez betetako bi hilabete luze dituzte aurretik. Hala ere, antzinako pirata baten mezu misteriotsuak eta altxor preziatu baten promesak dena hankaz gora jarriko dute. Pirata misteriotsua nor zen jakitea lortuko ote dute? Altxorra aurkituko ote dute?

**“Zapiaren jolasa”
(ARRATEKO ANDRA MARI)**

Zapia eta jokatzeko toki zabala besterik ez da behar ARRATEKO ANDRA MARIko ikasleek proposatzen diguten jokuan aritzeko. Irabazi nahi baduzu, azkarra izan behar zara bai buruz bai hankaz.

Nola jokatzen da?

- Lurrean bi marra marraztu eta erdibidean puntu bat markatu, zapia eusten duen pertsona bertan kokatzeko.
- Bi talde egin eta taldekide bakoitzak zenbaki bat edukiko du.
- Taldeak lerroen atzean jarriko dira, bata bestearen parean.
- Zapia duenak zenbaki bat esango du eta zenbaki hori duten taldekideak zapiaren bila irtengo dira.
- Zapiaren bila irten direnek zapia hartu eta euren

Jolastokixan jolasian



taldea dagoen tokira bueltatu beharko dira zapiarekin.

- Beste taldekoak zapia daramana bidean harrapatzen badu, harrapatzen duenak irabaziko du.
- Ez da inor kanporatuko eta jokalaria guztiek jokatzean amaituko da jokua.

BIDEOA:

<http://etakitto.eus/txikitto/arratekoandramari.html>

Otsailak 23, barixakua

✓ Just Dance Jazinto Olabe Ludotekan.
18:00etan. 8-11 urte bitartekoentzat.
Doan.



Otsailak 24, zapatua

✓ Zapatuko ipuina: Uretako ipuinak. Eneritz Artetxe.
18:00etan umeen liburutegian.
4-9 urte bitartekoentzat. Doan.



✓ Astelena Haur Parkea.
11:00-14:00 / 16:30-20:30

BITXIKERIAK



Katu bati biboteak kentzen badizkiogu, ezingo du ondo ibili, oreka galduko du eta jausi egingo da (probarik ez egin gero!)



Koala batek bizitza osoa eman dezake urik probatu gabe.



Gezurra badirudi ere, eltxoek 47 hortz dituzte.



Jaiotzen garenetik gure begiek beti dute neurri berbera.



Gizakiaren gorputzeko gihar indartsuena mingaina da.



8 urte, 7 hilabete eta 6 egunetan oihu egiten baduzu, katilukada bat kafe berotzeko adina energia sortuko duzu.



Labezomorroa bederatzi egun bizi daiteke bururik gabe, gosez hil baino lehen.



Oilo batek sekula egin duen hegaldirik luzeena 13 segundokoa izan zen.



Krokodiloek ezin dute mingaina atera.



Itsasondoan bizi den arrain batek hain luzeak ditu hortzak ahoa ezin duela itxi.



AURKITUTAKO KOADERNOA

Gogoan ez dudan herri txiki batean, Nora izeneko neska bat bizi zen. Norak 12 urte zituen. Bera beste hainbat gauzen artean oso alaia, jatorra eta argia zen. Lagun berriak egitea atsegin zuen. Nora egunero lotaratzen zenean bere egunerokoa hartu eta hor, egun horretan egin zituen lagunei buruz idazten zuen.

Dena neguko arratsalde euritsu batean hasi zen. Nora eguraldi txarra egiten zuenean oso triste jartzen zen. Nora oso alaia zen beraz triste egotea oso berezia zen. Tristura hori kentzeko bere egunerokoa hartu eta hasieratik irakurtzen hasi zen. Konturatu zen bere oso ohitura zahar bat zela. Bost urteko neska zenetik idazten zuela aditu zen.

Lehenengo mailako lagunei buruz irakurtzen hasi zen. Pilo bat izen zeuden . Batzuetaz gehiago gogoratzen zen beste batzuetaz baino. Jeremi izeneko mutil batez gogoratu zen. Mutil hori bai bihurria... Berak egindako bitxikeri bat irakurri zuen:

Gaur 2012ko otsailak 10. Mutil berriaren bigarren eguna da. Andereñoa azaltzen zegoen bitartean bera korroskadak botatzen hasi da. Andereñoak pasabidera zigortuta bidali du. Baina hau ez da dena izan. Jeremik pasabidean “asko aspertuko zela” erantzun dio. Beraz andereñoak mahaiarekin bidali du pasabidera. **HAU MARKA!!!**

Horren azpian Jeremiren mugikorraren zenbakia zegoen. Norak deitzea erabaki zuen.

Norak korrika batean mugikorra hartu zuen. Bere zenbakia jarri eta... pi... pi... pi

Hirugarren pi-a entzundakoan Nora pentsatzen hasi



zen ez ziola hartuko. Laugarren pi-a eta...

-Kaixo, nork deitzen du?-entzun zen.

- Kaixo, Jeremi zara?

- Bai eta zu nor zara?

- Ni, ba... Nora zure txikitako laguna, nitaz gogoratzen al zara?

- Bai noski, Nora, baina zenbat denbora... Zelan dena hortik?

- Hemendik dena nahiko ondo...

-Jeremi, orain zein herritan zaude?

- Ni Erroman bizi naiz, nire aitaren enpresak hona bidali zuelako.

- Erroma, hori bai hiri polita... hau oso aspergarria da...


- Bai zera, italiara ez da ezer ere ulertzen, nahiago nuke hemen euskaraz hitz egitea ... Beno, Nora, beste batean hitz egingo dugu, afaltzera joan behar naiz eta.

Gaueko hamarrak ziren, Norak ohera joan behar zuen. Bere koaderno horretan orrialde bat gelditzen zitzaion. Beraz berari buruz idaztea erabaki zuen.

Hurrengo egunean hondartzara joan, koaderno bat poltsa baten barruan sartu eta koaderno bat itsasora bota zuen. Horregatik daukat nik, Karmele. Nik aurkitu nuelako.

Eta txaraban txiribin, ipuin hau bukatu dut nik!

**Eskatu aitari edo
amari ipuin hau gaur
gauean kontatzeko.
MEREZI DU...**



zu margolari